

Elkarrizketak

1.

Zer deritzo-
zu ELERIA,
Euskal
Legelarien
Aldizkariaren
proiektuari?

?**2.**

Zein da eus-
karaz egiten
den zuzenbi-
dearen ego-
era zure
lanbidearen
eta zure
esperientzia-
ren ikuspegi-
tik?

?**3.**

Zer deritzo-
zu oraintsu
gauden ego-
era honi?
Egiguzu
egoeraren
balorazio
bat.

?**4.**

Zer iritzi dio-
zu gaur
egun zen-
bait abokatu
euskaldunen
eta auzite-
gietako itzul-
zaileen
artean dago-
en polemika-
ri?

?

ARRIETA, Jon
Zuzenbideko irakasle titularrak. EHU

**1.**

Gaur egun profesional
elebidunen
prestakuntza fasean
gaude, Fakultateko
ikuspegitik agian ez
daukagu kopuru
nahikorik halako

aldizkari baten erabiltzaileen oinarri bat osatzeko. Irakasleagoa ere prestakuntzan dago, tesia egiten, orduan horiek agian ez daude oraindik behar bezalako emaitza bat emateko egokieran, eta honelako aldizkari bat normaltasunez luzatu ahal izateko. Zalantza daukat ez ote gauden oraindik egoera gordinegian. Esan daiteke ere agian magma edo oinarri hori sortu eta gorputza emateko behar dela halako organo bat, halako bitarteko bat. Fase honetan aldizkariak eredu zabal samarra jarraitu beharko luke. Eredua ondo asmatu behar da.

2.

Oinarrian behar diren irakaskuntzarako eta ikasketetarako bitartekoak ari gara jartzen, pertsonak formatzen beren lana euskaraz egin ahal izan dezaten, Administrazio mailan, abokatu mailan, justizia mailan... Nik garrantzi handia ematen diot prestakuntza horri, irakasleen kasuan esaterako, tesiak egiteak batez ere berebiziko garrantzia du. Horrek eskatzen du prestakuntza akademikoan pausoak behar bezala eman behar direla. Fase hori bete ondoren orduan pasako ginateke beste batera. Baina bestalde, giza-bitarteko horien emaitza posiblea bilatu behar da. Justizia administrazioan, adibidez, bada problema handi bat itzulpenekin. Agian ordua da epaileen elebitasuna planteatzen hasteko, administrazio beste arloetan bezala. Epaitegi elebidunen sare bat egin beharko litzateke, epaitegi horiek elkar osatuz eta abar.